

GUDAREN AURKAKO ETENALDIA

Egun on, Olabide Ikastolako ikasle eta bidelagunok:

Gaur, azaroak 20, haurren eskubideen nazioarteko eguna da. Haurren eskubideen aldarrikapeneko 38. artikulua dio: "Haurrek eskubidea dute gudetan babesa jasotzeko". Munduan dauden guden aurka gaude. Olabide Ikastolako komunitatea gaur hemen elkartu gara, egoera honetan dauden pertsonen eskubideak aldarrikatzeko.

Guda guztien amaiera eskatzen dugu. Eta gure ahotsak entzun daitezten "Txoriak txori" denok batera abestuko dugu. Dakizuen bezala euskal abesti honek transmititzen diguna askatasun eza da. Gudek guztioi moztan dizkigute hegoak.

Hau garrantzitsua dela uste duzue? **Bai!** Horren kontra zerbait egiteko prest zaudete? **Bai!**

Horrela bada, gogoz eta indartsu abestu dezagun gure aldarrikapena lau haizetara zabalduz.